

ALTSASUKO HIRIA I. XAKE TXAPELKETA.

(2008.go irailaren 7an jokatua).

Altsasu Iruñetik 50'2 kilometrora dago. 7.455 biztanle zituen 2005. urtean (% 11'80 euskaldun, 1996ko datuen arabera). Alkatea Nafarroa Bai koaliziokoa da. 1850. urtean 1.000 bizilagun inguru zituen (% 90 euskaldun), baina XX. mendeko industrializazioak erabat aldatu zituen Altsasuko ezaugarri soziologikoak (soziolinguistikoak barne), inmigrazio handiko lekua bihurtu baitzen.

Tradizioaren arabera, Garcia Ximenez Nafarroako lehenengo erregea Altsasun koroatu zuten (legenda izan badaitekeen arren, horrela geratu da tradizioan). Altsasuarrek dira Helena Taberna zine zuzendaria, Agustin Gonzalez Acilu konposatzailea eta Enrike Zelaia akordeoilaria.

Igandean jokatu zen Altsasuko Hiria I. Xake Txapelketa, Altsasuko Plazan kokatutako eraikin batean, jaien aurreko ekitaldi moduan. 20 minutuko partidak izan ziren, zazpi jardunaldiko sistema suitzarra erabilita. 16 jokalarik soilik eman zuten izena, sariak jarri arren. Antolatzaileek eskarmentu falta ordaindu zuten, publizitatea egiteko orduan ez baitzuten asmatu. Altsasuko taldea Laukia da. Aurreko denboraldian egin zuen debuta Nafarroako Taldekako Txapelketan, Bigarren Mailan.

Eguerdian, nahi izan zuten jokalariek dohaineko bazkariatz gozatu zuten. Aukera hori 9 jokalarik soilik baliatu zuten, gainontzekoak inguruan bizi zirenez etxean bazkaltzea nahiago izan zutelako.

AZKENEKO SAILKAPENA.

- 1) **Iñaki Rebole Arbea – 7 puntu.**
- 2) **Javier Sevilla Subiza – 5 puntu.**
- 3) **Luis David Jimenez Almeida – 4'5 puntu.**
- 4) **Joseba Otano Villanueva – 4'5 puntu.**
- 5) **Manex Insausti Olasagarre – 4 puntu.**
- 6) Juan Andres Cerro Larraz – 4 puntu.
- 7) Sebastian Insausti Goñi – 4 puntu..
- 8) **Adrian Ortega Lopez – 4 puntu.**
- 9) Aritz Idiazabal Troyas – 3'5 puntu.
- 10) Koldo Flores Lazkoz – 3 puntu.
- 11) Mikel Ortega Lopez – 3 puntu.
- 12) Ismael Anton Reparaz – 3 puntu.
- 13) Aitziber De Miguel – 2'5 puntu.
- 14) Aitor Arregui – 2 puntu.
- 15) Axel Grube – Puntu bat.
- 16) Adelino Moreira Da Silva – Puntu bat.

Iñaki Rebole nagusitasun handiz irabazi zuen Torneoa. Faborito garbia zen eta pronostikoa bete zuen, arazo handirik gabe.

Ongi prestatutako jokalarik gazte andana aritu zen eta erraz pentsa zitekeen Laukia taldeko jokalariek atzean geratuko zirela. Halaxe gertatu zen.

Javier Sevillak txapelketa txukuna egin eta bigarren postua bereganatu zuen: Iñaki Rebole eta Joseba Otanoren aurka galdu eta beste guztiak irabazita.

Luis David Jimenez Almeida ere ongi ibili zen, **Manex Insaustiren** aurka itota puntu erdi erabakigarria poltsikoratu bazuen ere. Hirugarren eta 14 urtez azpiko lehenengoa geratu zen.

Joseba Otano beteranoak lehenengo partida azkar asko galduta (**Sebastian Insaustiren** aurka), Txapelketa altxatzea lortu zuen (azkeneko txandan, **Manex Insausti** garaitzeko partida errematatzea falta izan bazitzaion ere).

SARIAK.

Iñaki Rebole Arbea lehenengoarentzat 150 euro, trofeoa eta ardo botilatzarra.

Javier Sevilla Subiza bigarrenarentzat 100 euro eta trofeoa.

Joseba Otano Villanueva laugarrenarentzat, 50 euro eta hirugarrenari zegokion saria.

Luis David Jimenez Almeida 14 urtez azpiko lehenengo jokalariaentzat, 150 euro eta trofeoa.

Manex Insausti Olasagarre 14 urtez azpiko bigarren jokalariaentzat, 100 euro eta trofeoa.

Adrian Ortega Lopez 14 urtez azpiko lehenengo jokalariaentzat, 50 euro eta trofeoa.

Beste sari batzuk ere banatu ziren.

2008-09-07.

Iturria: Laukia talde antolatzailea.